

aurreko orrialdetik dator

zoa bere nortasuna, ordu arteko izaera guztia dela esango zaio kide berriari, eta horrekin guztiarekin apurto behar duela.

«Largantza elkartean kasu asko ikusi ditugu, eta batzuk benetan gogorak dira, ez sinestekoak: esate baterako, yoga klase batzuetara joaten hasi eta taldeko buruzagiaren etxeko lurra musu truk garbitzen amaitu duen emakume bat. Eta, gainera, hori egiteko ematen dagoela konturatzaren garenean zer egin jakitea. Normalean, eraso egiten diogu: talde totalitario batean sartu dela ohartarazten diogu, bere bizitzaz jabetzen ari direla, sektaren alde txarrak azpimarratzen... Uste dugu horixe dela egin behar ez dena, taldeak bertan horretarako entrenatzen baitituzte. Esaten diete, ingurukoek elkartean aurka hitz egingo diotela, ez dutela bere erabakia ulertuko, eta, ondorioz, jarraitzaileak gero eta gehiago sinesten du taldean. Gure iduriko, onena, biktimaren ondoan egotea da, entzutea, babes hori zergatik bilatu duen ulertzen saiatzea, eta inoiz ez sektaren kontra gehiegi jardutea. Halaber, adituekin harremanetan jartzea komeni da», adierazi du Perlado Recacher psikologoak. «Hein handi batean, gorputzak eskatzen digunaren kontrakoa egitea».

Lege aldetik, berriz, ez da hain erraza talde totalitario zehatzen kontra egitea. Baina arlo horretan Euskal Herri barruan aldeak daude: Ipar Euskal Herrian tresna gehiago daude, Frantziako Estatuan manipulazio psikologikoa delitu gisa tipifikatuta baitago. Hego Euskal Herria Espainiako Justiziaren menpe dagoenez, ez dago halako baliabiderik.

Nolanahi ere, prebentzioa eta informazioa dira sekte aurre egiteko modurik eragingarrienak. Arazoei irtenbide errazak ematen dizkieten proposamenak errezeloz hartu behar dira; terapia eta eredu berrien atzean zer dagoen ondo aztertzea komeni da ezertan sartu aurretik. Eta, batez ere, beren mezua gazteengana zuzentzen duten arren inor ez dagoela sektetatik libre pentsatu behar da, guztiok izaten baititugu gorabeherak eta ahuldade uneak. Guztiok behar izaten baititugu erantzunak.

Laguntzeko, ulermena

Talde totalitarioen jokatzeko modua aldatzen ari da, gainera. Garai batean, aldarrikapen eta erakustaldi handiak egiten zituzten jendea erakartzeko, baina orain, xumeago, nolabait eguneroko bizimoduan txertatuta jarduten dute. Hitzaldiak eta ikastaroak izaten dira gehienetan amuak. Halaber, terapiak, nor bere buruarekin hobeto sentitzeko metodoak eta antzerakoak proposatzen dituzten

talde txikiak ugaritzen ari dira; txikiak dira, baina, funtsean, sekta handi eta klasikoak bezain arriskutsuak. Horregatik guztiagatik, zaila gertatzen da talde totalitarioak antzematea.

Aurrena, jarraitzaileen senide eta lagunak ohartu ohi dira arazoaz, beren betiko ohitura eta izaerak goitik behera aldatzen dituztelako. Era berean, beren ingurukoekiko haserre eta suminkor agertu ohi dira. «Ez da erraza familiakoren bat edo lagun bat sektaren batean dagoela konturatzaren garenean zer egin jakitea. Normalean, eraso egiten diogu: talde totalitario batean sartu dela ohartarazten diogu, bere bizitzaz jabetzen ari direla, sektaren alde txarrak azpimarratzen... Uste dugu horixe dela egin behar ez dena, taldeak bertan horretarako entrenatzen baitituzte. Esaten diete, ingurukoek elkartean aurka hitz egingo diotela, ez dutela bere erabakia ulertuko, eta, ondorioz, jarraitzaileak gero eta gehiago sinesten du taldean. Gure iduriko, onena, biktimaren ondoan egotea da, entzutea, babes hori zergatik bilatu duen ulertzen saiatzea, eta inoiz ez sektaren kontra gehiegi jardutea. Halaber, adituekin harremanetan jartzea komeni da», adierazi du Perlado Recacher psikologoak. «Hein handi batean, gorputzak eskatzen digunaren kontrakoa egitea».

Lege aldetik, berriz, ez da hain erraza talde totalitario zehatzen kontra egitea. Baina arlo horretan Euskal Herri barruan aldeak daude: Ipar Euskal Herrian tresna gehiago daude, Frantziako Estatuan manipulazio psikologikoa delitu gisa tipifikatuta baitago. Hego Euskal Herria Espainiako Justiziaren menpe dagoenez, ez dago halako baliabiderik.

Nolanahi ere, prebentzioa eta informazioa dira sekte aurre egiteko modurik eragingarrienak. Arazoei irtenbide errazak ematen dizkieten proposamenak errezeloz hartu behar dira; terapia eta eredu berrien atzean zer dagoen ondo aztertzea komeni da ezertan sartu aurretik. Eta, batez ere, beren mezua gazteengana zuzentzen duten arren inor ez dagoela sektetatik libre pentsatu behar da, guztiok izaten baititugu gorabeherak eta ahuldade uneak. Guztiok behar izaten baititugu erantzunak.

Euskal Herrian lanean ari diren sektak*

Nahi adina

SANATANA DHARMA

Zestoan dauka Euskal Herriko egoitza nagusia. Hinduismoarekin du harremana eta yoga erabiltzen dute jendea erakartzeko. Langartzaren arabera, Sociedad Teosofica Española talde totalitarioarekin dauka harremana.

HARE KRISHNA

Sektarik ezagun eta aspaldikoenetako bat da. Hinduismoan du oinarria, eta lanari eta oitizari eskaintako bizimodu gogorra eskatzen die kideei. Euskal Herrian, Gasteiz aldean dute indarra, baina Donostian ere badira taldeak. Komunitateetan bizi ohi dira eta umeak gurasoetatik bereizten dituzte. Haur horietako hainbatek tratatu txarrak jasotzen dituzte eta onartu zuen Hare Krishna taldeak berak iaz. Taldeko buruzagiak erabat aberastu direla diote adituek.

BRAMA KUMARIS

Denbora batez Euskal Herriko desagerituta egon da mugimendu hori, baina berriro agertu da, Baiona aldean, Irunen eta Errenteria aldean. Oinarri hinduista du horrek ere. Aurreko biek bezala, guru edo buruzagiarengana menpekotasun handia sortzen du.

KOMUNITATEA-ALDERDI HUMANISTA

Txilen sortutako mugimendua da, Silo *Andeetako mesia* buruzagiaren inguruan. Ez da mugimendu erlijiosoa, baizik eta tankera politiko handia du. Dena den, Silo buruzagia Karl Marx berriztat jotzeaz gain, estralurtarra eta mesias iragarria dela esan izan dute haren jarraitzaileek. Alderdi Humanista eta Berde Ekologikak talde horren adarrak dira eta Euskal Herrian hauteskundeetara aurkeztzen dira. Donostian, Basaurin, Arabako zenbait lekutan... dituzte taldeak.

MAITASUNAREN FAMILIA-JAINKOAREN HAURRAK

Azken urteetan eskandalu gehien sortu duen sektetako bat da, besteak beste tal-

deko emakumezkoak prostituitzera bultzatzen dituztelako eta hurrei abusu sexualak egiten dizkietela salatu izan delako. Duela pare bat urte Urnietan egon zen sekta horretako talde bat, baina antzeman zituztela sumatu zutenean-edo alde egin zuten. Sexuaren bidez erakartzeko jarraitzaile asko.

ROSACRUZ (AMORC)

Greziako eta Erromako erlijio eta sinismen batzuk, kristautasunaren oinarri batzuk eta jatorri gnostikoko ezagutzak batzen ditu. Largantzakoen iduriko, oso arriskutsua da, jendearen osasun mentala asko honda dezakeelako.

DIANETIKA (ZIENTZIOLOGIA)

Sekta ezagun eta boteretsuenetako bat da; besteak beste, Hollywoodeko hainbat izar jarraitzaile dituelako (Tom Cruise, John Travolta...). Euskal Herrian Bizkaian dezenteko indarra dute eta Gasteiz aldean ere bai. Nor bere burua ezagutzeko eta hobetzeko bideak proposatzen dituzte, azkenean jarraitzaileen goitik beherainoko kontrola lortzeraino. Bizkaian bada talde horren ezagutza eta hobekuntza ikastaroak jarraitu eta ordaintzearen ondoren guztiak —baita etxea ere— galdu duen zenbait jende.

PALMAR DE TROYA

Andaluzian sortu zen, 60eko hamarkadaren amaieran, neskato batzuk Palmar de Troya izeneko lekuan Andre Maria agertu zitzaizela esan ostean. Mutur-muturreko katolikoak dira, oso eskuindarrak. Pablo VI.a hil zenean beren Aita Santu propioa (Clemente aita santua) aldarrikatu zuten. Francisco Franco diktadorea gurtzen dute. Kideek ezin dute kalera bakarrik atera, posta harreman pribaturik izan... Euskal Herrian, Bermeon dute etxe bat.

GNOSTIKOAK

Eliza Gnostiko Kristau Unibertsala eta Ikasketa Kultural eta Antropologikoen Elkarte Gnostikoa (GIA) dira korrante horretako talde ezagunenak. Naturan eta norberaren ezagutzan oinarritutako hobekuntza bideak proposatzen dituzte. Gipuzkoako Goierri, Tolosaldean, Zumarraga-Urretxun eta Legazpin indar handia dute. Meditazioarekin-eta hasten dira, baina pixkanaka jendearen jabe egiten dira.

AZKEN EGUNETAKO SANTUEN JESU KRISTOREN ELIZA

Mormoi deitzen die jendeak. Oinarri kristau protestanteak ditu. Erlijio ote denetz edo talde totalitarioa denetz, eztabaida gehien sortzen duen taldeetako bat da. Largantzakoen sektatzat dute. AEBetatik etortzen da jendea Euskal Herrira, jarraitzaileak biltzera. Ingeleseko doako klaseak erabiltzen dituzte jendea biltzeko amu gisa.



Hinduismoan oinarritutako...

MAIKARI ARGIA

Yoga, meditazione, horretako proposatzen dituzte jendea. Koreako laguntzaile talde hori zab...

LEGE NATURALA ALDERDI...

Hauteskundeetarako zuzenbide munduko arlo bide gisa; zuzenbide eta hegaldi y... ban dute gure bizitza sartzen ari diren unibertsitate batzuen bidez...

SILVA MENDI...

Norberaren...



Hare Krishnaren ikonoetako zenbait. Beren profeta eta sinesmenak irudikatzen dituzte.